

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LEGUTIOKO UDALA

Lizitazioa, udal eraikinak eta instalazioak garbitzeko zerbitzua kontratatzeko

Alkatearen 2016ko irailaren 5eko erabakiarekin bat etorriz, iragarki honen bidez deia egiten da, prozedura ireki bidez, oinarritzat eskaintza ekonomikorik onena eta hainbat esleipen irizpide hartuta, Legutioko udal eraikinak eta instalazioak garbitzeko zerbitzuaren kontratua esleitzeko, datu hauekin:

1. Erakunde esleitzaila: datu orokorrak eta argibideak eskuratzeko datuak:

a) Erakundea: Legutioko Udala.

b) Espedientea izapidetuko duen bulegoa: Idazkaritza.

c) Agiriak eta argibideak eskuratzeko:

1) Bulegoa: Idazkaritza.

2) Helbidea: Karmen kalea, 10

3) Herria eta posta kodea: 01170 Legutio

4) Telefonoa: 945 45 50 10

5) Faxa: 945 45 51 25

6) Posta elektronikoa: idazkaria@legutio.eus

7) Kontratatzailearen profilaren Interneteko helbidea: www.legutio.eus

2. Kontratuaren xedea:

a) Mota: zerbitzuak.

b) Azalpena: Legutioko udal eraikinak eta instalazioak garbitzea.

c) Gauzatzeko lekua:

1) Helbidea: udal eraikinak eta instalazioak

2) Herria eta posta kodea: 01170 Legutio

e) Gauzatzeko epea: urtebete.

f) Luzapena egin liteke: urtebete.

g) CPV (nomenklatura erreferentzia): 90919000-2

3. Izapidetzea eta prozedura:

a) Izapidetzea: arrunta

b) Prozedura: irekia

c) Esleipen irizpideak:

A. Automatikoki kuantifikagarri diren irizpideak:

1. Prezioa: gehienez 20 puntu; 1 puntu, lizitazioko gehieneko prezioetik jaisten den 200 euroko tarte bakoitzeko.

B. Balio judizio baten arabera neurtzen diren irizpideak:

1. Eman beharreko zerbitzuaren ezaugarri orokorrak (langileen plana, langileak edukitzea eta horien prestasuna, kontrol sistemak, ordutegia eta zerbitzu egunak): gehienez 20 puntu.

2. Ingurumen gaiak (adibidez: ingurumen kudeaketa frogatzea, ingurumena errespetatzen duten poltsak erabiltzea, materialetan mikrozuntzak erabiltzea, energia eta ur gutxiago kontsumitzeko aukera ematen duten makinak edukitzea, etab.): gehienez 15 puntu.

3. Baldintza teknikoaren agiriaren gainean proposatutako hobekuntzak: gehienez 15 puntu.

4. Licitazioaren oinarriko aurrekontua:

a) Zenbateko garbia: 105.000,00 euro.

BEZa: 22.050,00 euro

Zenbatekoa, guztira: 127.050,00 euro

5. Eskatutako bermeak:

Behin-behinekoa: ez da eskatzen.

Behin betikoa: esleipen zenbatekoaren ehuneko 5.

6. Kontratzailearen betekizun espezifikoak: administrazio klausula berezien agiriaren zarpigarren klausulan ezarritakoaren arabera.

7. Eskaintzak edo parte hartzeko eskaerak aurkeztea:

Iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo hamabost (15) egun naturaletan, Legutioko Udaleko erregistroan, 07:00etatik 15:00etara, astelehenetik ostiralera; epearen azken eguna jaieguna bada, hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da.

8. Eskaintzak irekitzea:

Kontratzailearen profilean iragarriko da (www.legutio.eus).

9. Iragarkien gastuak:

Esleipendunak ordainduko ditu.

Legutio, 2016ko irailaren 5a

Alkatea

NEKANE GARAIGORDOBIL BENGOA